



## AKTA

Espediente-zk.:	Kide anitzeko organoa:
OSOKO BILKURA/2024/7	Udalbatza

BILKURAREN DATUAK	
Deialdi mota	Ohikoa
Eguna	2024ko maiatzaren 20a.
Iraupena	19:00etatik 20:00etara
Tokia	Osoko bilkuren aretoa
Udalburua	Javier Gorbeña García
Idazkaria	Ziortza Guinea Gutiérrez

BILKURARA BERTARATU DIRENAK		
NAN zk.	Izen-abizenak	Bilkuran izan da
18593219L	AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ	BAI
16032037W	CARLOS ALBERTO ITURRIOZ MALAINA	BAI
18598103G	ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁN	BAI
16287057K	EDUARDO LORZA GARCÍA	BAI
72748486S	IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LÓPEZ DE IPIÑA	BAI
30641952H	JAVIER GORBEÑA GARCÍA	BAI
72841412K	MAITE COBO BARCALA	BAI
72831885Q	MIKEL ISASMENDI TXURRUKA	BAI
72841383S	XABIER NAFARRATE CADIÑANOS	BAI

Udalburuak bilkurari hasiera eman dio, idazkariak egiaztatu ondoren organoa balioz eratu dela, eta eguneko aztergaiak aztertzeari ekin zaio

### EBAZPEN-ZATIA





Ez dago gairik

### Onestea aurreko bilkuretako aktak, 2024ko apirilaren 15ekoa eta maiatzaren 13koa

Alkate jaunak galdetu du Udalbatzako kideren batek oharrrik egin nahi dien 2024ko apirilaren 15eko eta maiatzaren 13ko bilkuretako aktei. Aktak deialdiarekin batera banatu ziren.

Xabier Nafarrate Cadiñanos zinegotziak eskatu du 2024ko apirilaren 15eko bilkurako aktan etxeko laguntza-zerbitzuaren mozioaren botazioaren emaitzei dagozkien hainbat akats zuzentzeko, bai eta udal-langileari gradu pertsonala aitortzeari buruzko datu batzuk ere. Inork ez du oharrrik egin, eta, Toki Erakundeen Antolamenduari, Jardunbideari eta Araubide Juridikoari buruzko Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 91.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, aktak onetsi dira.

### 313/2022 espedientea. Murgia igerilekuak erabiltzeko Zuiako Udalarekin hitzarmena luzatzea onesteko erabaki-irizpena

**Aldekoa**

**Bozketa mota:** ohikoa / aho batez

Alkate jaunak jakinarazi du ezen, Bengolarrako kirol-instalazioen eraikina zaharberitzeko eta handitzeko obran egin behar izan diren aldaketak direla eta, udal-igerilekuak ez direla zerbitzuan egongo 2024ko bainu-denboraldirako; hortaz, Zuiako Udalarekin sinatutako hitzarmena luzatu egin beharko da, Zigoitiko herritarrek Murgia igerilekuak erabil ditzaten; izan ere, hitzarmen horren hasierako iraupena 2 urtekoa zen eta 2024ko abuztuaren 17an amaituko da.

Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:

Aztertu da Zigoitiko biztanleek, erroldatutako pertsona gisa, Bengolarrako udal kirol-instalazioak zaharberitzeko eta handitzeko obrek irauten duten bitartean, Zuiako kirol-instalazioetako igerilekuak erabiltzeko Zuiako Udalarekin 2022ko abuztuaren 17an sinatutako administrazio-hitzarmena.

Hitzarmen horren hasierako indarraldia 2 urtekoa zen, hitzarmena formalizatzen zenetik aurrera, eta 2024ko abuztuaren 17an amaituko da.

Bengolarrako kirol-instalazioen eraikina zaharberitzeko eta handitzeko obretan egin behar izan diren aldaketak direla eta, udal-igerilekuak ez dira publikoarentzat irekita egongo 2024ko bainu-denboraldirako.

Aztertu da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak hitzarmenen indarraldiari buruzko 49. h) artikulua 1. eta 2. puntuan xedatutakoa. Honako hau dio hitzez hitz: *"1. Hitzarmenek iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.*

*2º. Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea".*

Udalbatza Osoak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

**LEHENENGOA.** Onestea Zuiako Udalarekin 2022ko abuztuaren 17an sinatutako administrazio-hitzarmena luzatzea, Zigoitiko biztanleek Zuiako kirol-instalazioetako igerilekuak erabil ditzaten, eta Zuian erroldatutako pertsona eta familientzat Udalak onartutako urteko tasa ordaintzea, 2024ko udako denboraldian erabiltzeko; izan ere, Bengolarrako udal kirol-instalazioak zaharberitzeko eta handitzeko obrak ez dira bukatu. Luzapen honen indarraldia 2025eko maiatzaren 31n amaituko da, eta automatikoki luzatuko da 2025eko irailaren 30era arte. Horretarako, hitzarmenaren indarraldia amaitu baino lehen, Zigoitiko





Udalak Zuiako Udalarari jakinarazi beharko dio ezin izango duela udal-igerilekuen zerbitzua eman 2025eko udaldian, eraberritzeko eta handitzeko lanak amaitu ez direlako.

**BIGARRENA.** Erabaki hau Zuiako Udalarari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

**HIRUGARRENA.** Alkateari ahalmena ematea bi udalek sinatu beharreko luzapena formaliza dezan.

**LAUGARRENA.** Hitzarmen horren luzapena administrazio-hitzarmenen udal-erregistroan jasotzea.

**BOSGARRENA.** Hitzarmena eta luzapenaren formalizazioa Udalaren web-gunean argitaratzea, hitzarmenen eta kudeaketa-aginduen atalean.

**290/2024 espedientea. 2024ko garapen-proiektua finantzatzeko Euskal Fondoari dirulaguntza izenduna ematea onesteko erabaki-irizpena**

**Aldekoa**

**Bozketa mota:** ohikoa / aho batez

Alkate jaunak jakinarazi du Euskal Fondoak 2024an garatuko dituen garapen-proiektuen finantzaketa-egoera bidali du eta, eta haren proposamena dela 2023an finantzatutako Nikaraguako proiektua finantzatzen jarraitzea. Zehazki proposatu du, 2024ko udal-aurrekontuko aplikazioaren bidez (19.000 €) honako proiektu hau finantzatzea: 2. fasea: Tipitapako Las Cruces auzoan 480 ml euri-drainatze eraikitzea, zubi-kutxa eta kanaleta angeluzuzena, zehazki indartua eta 350 ml-ko galtzada-harria duena (erref. p355-24).

Udalbatza osoak, aho batez, honako erabaki hau hartu du:

Aztertu da 2024 ekitaldirako udal-aurrekontuko 231.481.000 aurrekontu-aplikazioan badela Euskal Fondoak sustatutako proiektu solidarioak diruz laguntzeko kreditua. Aplikazio horren zenbatekoa 19.000 eurokoa da.

38/2003 Legearen Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 65.1 eta 65.3 artikuluekin bat etorritz: "...toki-erakundeen aurrekontu orokorretan izendun gisa aurreikusitako dirulaguntzak dira aurrekontuaren gastuen egoera-orrian beren helburua, aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna berariaz zehaztuta dituztenak".

Udalbatza Osoak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

**LEHENENGOA.** Euskal Fondoari 19.000 euroko dirulaguntza izenduna ematea p355-24 programa garatzeko, "2. fasea: Tipitapako Las Cruces auzoan 480 ml euri-drainatze eraikitzea, zubi-kutxa eta kanaleta angeluzuzena, zehazki indartua eta 350 ml-ko galtzada-harria duena".

Dirulaguntza hori bateragarria izango da edozein administraziok edo erakunde publiko zein pribatuk xede bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

**BIGARRENA.** Dirulaguntza hori aldeztetik ordaintzea, indarrean dagoen udal-aurrekontuko 231.481.000 aplikazioaren kontura.

**HIRUGARRENA.** Euskal Fondoari eskatzea diruz lagundutako gastuak egin direla justifikatzen duen dokumentazioa aurkez dezala. Justifikatzeko azken eguna 2025eko martxoaren 31 izango da.

Epe horretan, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 75. artikuluekin bat etorritz, Euskal Fondok justifikazio-kontu sinplea aurkeztu beharko du, honako eduki honekin:

a) Jarduketaren justifikazio-memoria. Zer jarduera gauzatu diren eta zer emaitza lortu





diren adierazi beharko da.

b) Diruz lagundutako jardueren gastuen eta sarrerren zerrenda, hartzekoduna edo, hala badagokio, ordaintzailea, zenbatekoa, faktura egin den eguna eta ordainketa-data adierazita. Aurkeztutako aurrekontu zenbatetsiarekiko desbideratzeak adieraziko dira.

c) Diruz lagundutako jarduerak finantzatu dituzten bestelako sarrerren eta dirulaguntzen zerrenda xehekatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

**LAUGARRENA.** Erabaki hau Euskal Fondoari jakinaraztea eta dagozkion errekurtsioak adieraztea.

**BOSGARRENA.** Emandako dirulaguntza Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan (BDNS) argitaratzea.

**291/2024 espedientea. 2025eko lan-egutegirako tokiko jaieguna onartzeko erabaki-irizpena**

**Aldekoa**

**Bozketa mota:** ohikoa / aho batez

Aztertu da 49/2024 Dekretua, apirilaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2025. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen duena, eta Udalbatzak Zigoitia udalerriko tokiko jaieguna proposatu behar du.

Lanaldia, lanaldi bereziak eta atsedenaldiak arautzen dituen uztailaren 28ko 2001/1983 Errege Dekretuaren 45. eta 46. artikuluetan xedatutakoa betetzeko (oraindik ere indarrean dago lanaldi bereziei buruzko irailaren 21eko 1561/1995 Errege Dekretuaren xedapen indargabetzaile bakarrean xedatutakoaren arabera), eta Langileen Estatutuaren 37.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Udalbatza Osoak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU:**

**LEHENENGOA.** 2025. urterako Zigoitiko udalerriko tokiko jai lan-agintaritzaren eskudunak abuztuaren 5a, asteartea, ezartzea proposatzea, eta egun hori egun baliogabetzat hartzea ondorio guztietarako.

**BIGARRENA.** Erabaki hau telematikoki jakinaraztea Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako Lurralde Ordezkaritzari, dagozkion ondorioak izan ditzan.

**301/2024 espedientea. 1/2024 kreditu gehigarria hasieran onesteko proposamena**

**Aldekoa**

**Bozketa mota:** Izenduna

Alde: 5 boto; aurka: 4; abstentzioak: 0

**Aldekoak**

JAVIER GORBEÑA GARCÍA (EAJ- PNV)  
CARLOS ALBERTO ITURRIOZ MALAINA (EAJ- PNV)  
MAITE COBO BARCALA (EAJ- PNV)  
IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA (EAJ- PNV)  
ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁN (PP)

**Aurkakoak**

EDUARDO LORZA GARCÍA (EH BILDU)  
AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ (EH BILDU)  
XABIER NAFARRATE CADIÑANOS (EH BILDU)  
MIKEL ISASMENDI TXURRUKA (EH BILDU)





Abstentzioak

-

Alkate jaunak bozketarako aurkeztu du 2/2024 kreditu gehigarria hasieran onestea gai-zerrendan sartzearen berrespena, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 eta 97.2 artikuluekin bat. Aho batez onartu da.

Eduardo Lorza García zinegotziak jakinarazi du EH BILDU bere udal-taldeak aurkako botoa emango duela, uste baitute obra zuzentzerik gabe kudeatzen ari direla, eta atzerapen handia eta % 19ko gainkostua eragiten duten ezustekoak agertzen ari direla.

Alkate jaunak erantzun du obra oso handia dela, eta, ondorioz, gorabehera ugari kudeatu behar direla. Azpimarratu du sortzen diren gaiak kudeatzen saiatuko direla, obra amaitu ahal izateko. Irizpena bozkatzeko eskatu du, eta gehiengoz onartu da. Honela dio hitzez hitz:

Bengolarrako kirol-instalazioen eraikina zaharberritzeko eta handitzeko obra egitea premiazkoa da. Obra EBko Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Programaren barruan Toki-erakundeentzako Eraikin Publikoen Birgaitzea Bultzatzeko Programako (tokiko PIREP) dirulaguntza baten bidez finantzatu da eta obra gauzatzeko gehieneko epea 2024ko irailaren 30ean amaituko da; hortaz, ezin da hurrengo ekitaldira arte atzeratu, interes korporatiboek kalterik egin gabe.

Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 3/2004 Foru Arauko 34. artikulua eta Aurrekontua Betearazteko Udal Arauko 13. artikulua arabera, Osoko Bilkurako kreditu gehigarriaren 2/2024 espedientea irakurri da, indarrean dagoen udal-aurrekontuaren barruan kredituak aldatzeko izapidetua.

Aztertu dira behin-behineko idazkari kontu-hartzaileak egindako txostenak.

Udalbatzak honako hau **ERABAKI DU**:

**LEHENENGOA.** Onestea 2/2024 kreditu gehigarria emateari buruzko espedientea. Guztira 290.000,00 euro dira, eta honako hauek dira gastuen partidak eta horiek finantzatzeko baliabideak:

GASTUEN APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEKOA
342.622.000	NG Bengolarrako eraikina birgaitzeko obra	290.000 €
<b>HANDITU BEHARREKO GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>290.000 €</b>

SARREREN APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEKOA
870.01	Diruzaintzako soberakina gastu orokorretarako	290.000 €
<b>SARREREN ALDAKETA GUZTIRA</b>		<b>290.000 €</b>

**BIGARRENA.** Espedientea jendaurrean jartzea, erreklamazioak 3/2004 Foru Arauko 15. artikuluan xedatutako modu eta epean aurkeztu ahal izateko.

**HIRUGARRENA.** Ebazpen hau behin betikotzat hartzea, erreklamaziorik egon ezean.

**LAUGARRENA.** Erreklamaziorik egonez gero, hilabeteko epean beste erabaki bat hartzea.

**BOSGARRENA.** Erabakia argitaratzea arauak ezarritako moduan eta epean.





**SEIGARRENA.** Aldi berean, espedientearen kopia bat igortzea Arabako Foru Aldundira.

**293/2021 espedientea. Bengolarrako kirol-instalazioen eraikina birgaitzeko eta handitzeko obren kontratuaren laugarren aldaketa onesteko proposamena**

<b>Aldekoa</b>	<b>Bozketa mota:</b> Izenduna Alde: 5; aurka: 4; abstentzioak: 0
Aldekoak	JAVIER GORBEÑA GARCÍA (EAJ- PNV) CARLOS ALBERTO ITURRIOZ MALAINA (EAJ- PNV) MAITE COBO BARCALA (EAJ- PNV) IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA (EAJ- PNV) ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁN (PP)
Aurkakoak	EDUARDO LORZA GARCÍA (EH BILDU) AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ (EH BILDU) XABIER NAFARRATE CADIÑANOS (EH BILDU) MIKEL ISASMENDI TXURRUKA (EH BILDU)
Abstentzioak	-

Alkate jaunak bozketarako aurkeztu du Bengolarrako kirol-instalazioen eraikina birgaitzeko eta handitzeko obren kontratuaren laugarren aldaketa onestea gai-zerrendan sartzearen berrespena, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 eta 97.2 artikuluekin bat. Aho batez onartu da.

Eduardo Lorza García zinegotziak azaldu du EH BILDU bere udal-taldeak akordioaren aurka bozkatuko duela, laugarren kontratu-aldaketa delako. Aldaketa horiek kostua 549.000 euroan igo dute, eta 2023ko urriaren 31n amaitu behar zuen obra amaitzeko epea atzeratu dute.

Alkate jaunak gaia bozkatzeko eskatu du, eta gehiengoz onartu da. Honako hau dio hitzez hitz:

2022ko urtarrilaren 24ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez, Zigoitiko Udalak erabaki zuen Bengolarra gunea birgaitzeko eta handitzeko obra INDENORT PV eta SLU PROVIDER IBÉRICA SLU ABEEri esleitzea, 2.903.991,88 euroan (% 21eko BEZa barne).

2023ko apirilaren 24ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez, Bengolarrako kirol-instalazioen eraikina birgaitzeko eta handitzeko obren kontratuaren 1. aldaketaren espedientea onartu zen, Europar Batasunaren Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak finantzatuta. Aldaketa horren bidez, obren prezio berriak onetsi ziren. Honako hauek dira prezioak:

	Prezio berria duen partida			Kontratutako prezioa duen partida			Partida orekatua				Igoeraren ehunekoa kontratuarekiko
	Unit.	Prezio unitarioa	EMA	Unit.	Prezio unitarioa	EMA	EMA	Kontrataren aurrekontua	Kontrataren aurrekontua baja barne	Kontratar en aurrekontua baja eta % 21eko BEZa barne	
1 Saneamendu-kolektorea	37,30	311,42	11.615,97	0,00	0,00	0,00	11.615,97	13.823,00	13.388,92	16.200,59	% 0,56
2 Konexio elektrikoa frontoira	1,00	2.876,21	2.876,21	0,00	0,00	0,00	2.876,21	3.422,69	3.315,21	4.011,40	% 0,14
3 Dorre-garabiaren eskala aurkako babes	2,00	1.547,34	3.094,68	0,00	0,00	0,00	3.094,68	3.682,67	3.567,02	4.316,10	% 0,15
4 Zimendu-hormak iragazgaiatea	233,08	39,99	9.320,87	0,00	0,00	0,00	9.320,87	11.091,83	10.743,52	12.999,66	% 0,45
5 Jarduketa beheko solairuko egituran	1,00	7.124,23	7.124,23	0,00	0,00	0,00	7.124,23	8.477,83	8.211,60	9.936,04	% 0,34
6 Ur-gehikuntzak eta leiho-isurkiak	775,17	11,92	9.240,03	0,00	0,00	0,00	9.240,03	10.995,63	10.650,34	12.886,91	% 0,44





eraistea												
7 Zimenduak saneatzea eta erregularizatzea	82,85	26,18	<b>2.169,01</b>	0,00	0,00	<b>0,00</b>	<b>2.169,01</b>	2.581,13	2.500,07	<b>3.025,09</b>	% 0,10	
8 Fatxadako arraila konpontzea	1,00	2.457,18	<b>2.457,18</b>	0,00	0,00	<b>0,00</b>	<b>2.457,18</b>	2.924,04	2.832,22	<b>3.426,99</b>	% 0,12	
<b>Guztira</b>			<b>47.898,17</b>			<b>0,00</b>	<b>47.898,17</b>	56.998,83	55.208,89	<b>66.802,76</b>	% 2,30	

2023ko abenduaren 18ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez, Bengolarrako kirol-instalazioen eraikina birgaitzeko eta handitzeko obren kontratuaren 2. aldaketaren espedientea onartu zen, Europar Batasunaren Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak finantzatuta. Aldaketa horren bidez, obren prezio berriak onetsi ziren. Honako hauek dira prezioak:

	Prezio berria duen partida			Kontratutako prezioa duen partida			Partida orekatua				Igoeraren ehunekoa kontratuarekiko
	Unit.	Prezio unitarioa	EMA	Unit.	Prezio unitarioa	EMA	EMA	Kontrataren aurrekontua	Kontrataren aurrekontua baxa barne (baja: 3,1402882 %)	Kontratar en aurrekontua baxa eta % 21eko BEza barne	
1 Frontoiko egitura egokitzea			<b>134.690,79</b>			<b>134.690,79</b>	<b>134.690,79</b>	<b>160.282,04</b>	<b>155.248,72</b>	<b>187.850,95</b>	% 6,47

2024ko urtarrilaren 31ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez, Bengolarrako kirol-instalazioen eraikina birgaitzeko eta handitzeko obren kontratuaren 3. aldaketaren espedientea onartu zen, Europar Batasunaren Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak finantzatuta. Aldaketa horren bidez, obren prezio berriak onetsi ziren. Honako hauek dira prezioak:

	Prezio berria duen partida			Kontratutako prezioa duen partida			Partida orekatua				Igoeraren ehunekoa kontratuarekiko
	Unit.	Prezio unitarioa	EMA	Unit.	Prezio unitarioa	EMA	EMA	Kontrataren aurrekontua	Kontrataren aurrekontua baxa barne	Kontratar en aurrekontua baxa eta % 21eko BEza barne	
1 Partzelako heskaia eraistea	217,35	19,96	<b>4.338,31</b>				<b>4.338,31</b>	5.162,58	5.000,46	<b>6.050,56</b>	% 0,21
2 Lorategian lurperatuta dagoen HA habea eraistea	36,03	106,67	<b>3.843,32</b>				<b>3.843,32</b>	4.573,55	4.429,93	<b>5.360,21</b>	% 0,18
3 Aisia-eremuko altzariak desmuntatzea eta kentzea	5,00	377,79	<b>1.888,95</b>				<b>1.888,95</b>	2.247,85	2.177,26	<b>2.634,49</b>	% 0,09
4 Lauza eta zola lotzeko altzairuzko barrak	170,50	24,20	<b>4.126,10</b>				<b>4.126,10</b>	4.910,06	4.755,87	<b>5.754,60</b>	% 0,20
5 Fatxada eta baoak pikatzea	30,00	197,21	<b>5.916,30</b>				<b>5.916,30</b>	7.040,40	6.819,31	<b>8.251,36</b>	% 0,28
6 Linea elektrikoetako kableak	1,00	64.407,05	<b>64.407,05</b>				<b>64.407,05</b>	76.644,39	74.237,53	<b>89.827,41</b>	% 3,09
7 Polimerozko leiho-isurkiak, 32/48 cm zabal.	103,00	68,73	<b>7.079,19</b>	16,50	32,63	538,40	<b>6.540,80</b>	7.783,55	7.539,12	<b>9.122,33</b>	% 0,31
8 SATE indartzeko bigarren sarea	419,61	23,54	<b>9.877,62</b>				<b>9.877,62</b>	11.754,37	11.385,24	<b>13.776,15</b>	% 0,47
9 Barneko zureriako zurezko aurremarkoak	28,00	110,68	<b>3.099,04</b>				<b>3.099,04</b>	3.687,86	3.572,05	<b>4.322,18</b>	% 0,15
10 R-90 proiektzio bermikulita	318,00	57,48	<b>18.278,64</b>	190,16	18,99	3.611,14	<b>14.667,50</b>	17.454,33	16.906,21	<b>20.456,51</b>	% 0,70
11 R-90 pintura intumeszenteduna	129,30	77,55	<b>10.027,22</b>				<b>10.027,22</b>	11.932,39	11.557,67	<b>13.984,78</b>	% 0,48
12 Desmuntatzeak eta birjartzeak	1,00	6.529,84	<b>6.529,84</b>				<b>6.529,84</b>	7.770,51	7.526,49	<b>9.107,06</b>	% 0,31
13 AMVISA obra zibila	1,00	14.084,60	<b>14.084,60</b>				<b>14.084,60</b>	16.760,67	16.234,34	<b>19.643,55</b>	% 0,68
<b>Guztira</b>			<b>153.496,17</b>			<b>4.149,53</b>	<b>149.346,64</b>	<b>177.722,50</b>	<b>172.141,48</b>	<b>208.291,19</b>	% 7,17

2024ko maiatzaren 13an, obra-zuzendariak proiektuan aurreikusi gabeko obra-unitateei buruzko txostena egin zuen, eta prezioak merkatuko prezio orokorren arabera finkatu zituen. Kontratataren adostasuna jasotzen da.

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duenak (aurrerantzean, SPKL), 242.4 artikulua xedatzen du ez duela kontratu-aldaketatzat hartzen:





ii. Prezio berriak sartzea, lege honetan eta berau garatzeko arauetan ezarritako prozeduren bidez kontraesanez finkatutakoak, baldin eta

- prezio berri horiek kontratuaren prezio orokorraren igoserarik ez badakarte
- obra-unitateetan hasierako aurrekontua guztira ehuneko 3 gainditu gabe eraginik ez badute.

Kasu honetan, obra-unitateen aldaketak prezioa igotzea dakarrenez (zehazki, 86.124,04 €-koa), obra-kontratuaren aldaketatzat hartuko da, eta, beraz, SPKLren 242. eta 205. artikuluetan aurreikusitako aldaketa-prozeduraren arabera izapidetu beharko da.

SPKLren 242.2 artikulua honako hau arautzen du:

*“Baldin eta, obra-kontratuaren aldaketak direla-eta, proiektuan aurreikusita ez zeuden obra-unitateak sartu behar badira edo horien ezaugarriak proiektuan ezarritakoak ez bezalakoak badira, eta beste lizitazio bat egin beharrik ez badago, Administrazioak finkatuko ditu aplikatu beharreko prezioak, kontratistari gutxienez hiru egun baliadunetz entzun ondoren. Kontratistak finkatu diren prezioak onartzen ez dituenean, kontratazio-organoak beste enpresaburu batekin kontratatu ahalko ditu aldaketok, finkatutako prezio horietan, edo zuzenean egikaritu ahalko ditu, edo kontratua suntsiarazi ahalko du, lege honen 211. artikuluari jarraituz”.*

Era berean, SPKLren 205. artikulua administrazio-baldintza partikularren agirian aurreikusi gabeko aldaketei buruzkoa da; aldaketa horiek prestazio gehigarriak, aurreikusi ezin diren inguruabarrak eta funtsezkoak ez diren aldaketak izan daitezke. Artikuluak honako hau aipatzen du:

*“1. Administrazio-klausula partikularren agirian aurreikusi gabeko aldaketak, edo aurreikusitakoak izanik ere aurreko artikuluan ezarritakoari egokitzen ez zaizkionak, honako **baldintza hauek** betetzen dituztenean egin ahalko dira soilik:*

*a) Justifikazioa izatea artikulua honen bigarren apartatuan zerrendatzen diren kasuetako batean.*

*b) Mugatuta egotea bera beharrezko egiten duen kausa objektiboari erantzuteko **zorrozki ezinbestekoak** diren aldaketak sartzera.*

*2. Aurreikusi gabeko aldaketa bat justifika lezaketen kasuak, baldin eta artikulua honen lehen apartatuan jasotako baldintza guztiak betetzen badira, honako hauek dira:*

*a) **Beharrezko gertatu denean hasiera batean kontratatutakoei obra, hornidura edo zerbitzu gehigarriak gehitzea, betiere honako bi baldintza hauek beteta:***

*1.a Kontratistaz aldatzea ezinezkoa izatea arrazoi ekonomiko edo teknikoengatik; esate baterako, kontratazio-organoa behartuta egotea hasieran kontratatutakoek dituzten ezaugarri teknikoek bestelakoak dituzten obra, zerbitzu edo hornidura batzuk eskuratzera, eta diferentzia horiek erabileran edo mantentzean neurritz kanpoko bateraezintasunak edo zailtasun teknikoak sortzea; eta, halaber, kontratistaz aldatzeak kontratazio-organoari eragozpen handiak edo kostuen igoera nabarmena ekartzea.*

*Inolaz ere ez da eragozpen handizat hartuko kontratistaz aldatzeko beste lizitazio bat egin behar izatea.*

*2.a Kontratuaren aldaketak kontratuaren diru-zenbatekoan dakarren aldaketak ez gainditzea, kontratuaren aldaketa horrekin bakarrik edo artikulua honen arabera adostutako beste aldaketa batzuekin batera, hasierako prezioaren ehuneko 50 BEZik gabe.*

*b) **Lizitazioaren unean aurreikusi ezin zitezkeen eta gerora sortu diren gorabeheretatik etorri denean indarrean dagoen kontratu bat aldatzeko beharra; betiere, honako baldintza hauek bete beharko dira:***

*1.a Administrazio arduratsu batek aurreikusi ezingo zituen inguruabar batzuetatik etortzea aldaketaren beharra.*

*2.a Aldaketak kontratuaren izaera orokorra ez aldaraztea.*







3.a Kontratuaren aldaketak kontratuaren diru-zenbatekoan dakarren aldaketak ez gainditzea, kontratuaren aldaketa horrekin bakarrik edo artikuluko honen arabera adostutako beste aldaketa batzuekin batera, hasierako prezioaren ehuneko 50 BEZik gabe.

**c) Aldaketak funtsezkoak ez izatea.** Kasu horretan, berariaz justifikatu beharko da haien beharra, adieraziz zer arrazoi dauden prestazio horiek hasierako kontratuan ez sartzeko.

Kontratuaren aldaketak funtsezkotzat jotzeko, haien emaitzak hasiera batean egindako kontratuaz bestelakoa den kontratu bat izan behar du benetan. Nolanahi ere, aldaketak honako inguruabar hauetako bat edo batzuk betetzen dituztenean joko dira funtsezkotzat:

1.a Aldaketak ezartzen dituen baldintzak hasierako kontratazio-prozeduran jasota egon balira aukera eduki izana hasieran hautatutako hautagaiez beste batzuk hautatzeko, hasieran onartutakoaz beste eskaintza bat onartzeko edo kontratazio-prozedurarako parte-hartzaile gehiago erakartzeko.

Nolanahi ere, aurreko paragrafoan aurreikusitako kasutzat hartuko da kontratistari beste sailkapen bat eskatzea –eta ez jatorrizko lizitazio-prozeduran eskatu zitzaiona– hala eskatzen duelako jatorrizko proiektutik edo baldintza-agiritik ateratzen diren obrei edo zerbitzuei egin nahi den aldaketa gehitzeak.

2.a Aldaketak hasierako kontratuan aurreikusi gabeko modu batean aldaraztea kontratuaren oreka ekonomikoa kontratistaren mesedetan.

Nolanahi ere, aurreko paragrafoan aurreikusitako kasutzat hartuko da egin nahi den aldaketaren ondorioz obra-unitate berriak sartzea eta horien zenbatekoa kontratuaren hasierako aurrekontuaren ehuneko 50etik gorakoa izatea.

3.a Aldaketak modu nabarmenean zabaltzea kontratuaren eremua.

Nolanahi ere, honako hauek betetzen direnean iritziko zaio aurreko paragrafoan aurreikusitako kasua gertatzen dela:

(i) Aldaketaren balioak, isolaturik nahiz osotara, hasierako prezioaren ehuneko 15etik gora aldaraztea kontratuaren zenbatekoa, BEZik gabe, obra-kontratuaren kasuan; edo ehuneko 10etik gora, BEZik gabe, gainerako kontratuaren kasuan; edo, bestela, 20. artikulutik 23. artikulura aipatutako atalasetatik kontratu mota dela-eta aplikatzekoa dena gainditzea.

(ii) Aldatu behar diren obrak, zerbitzuak edo hornidurak gaur egungo zein etorkizuneko beste kontratu baten eremuan egotea, eta, betiere, kontratazio-espeditentearen izapidetzea hasita egotea.

Egindako aldaketei dagokienez, aztertu da aldaketa bakoitzak SPKLn ezarritako baldintzak betetzen dituela, aurreikusi gabeko kontratu-aldaketa gisa izapidetu ahal izateko:

Obra-unitateak	Behar-beharrezkoak direnak	SPKLren 205.2 artikuluko kasuak
JARDUKETAK FRONTOIRAKO SARBIDEAN	Sarbideak hobetzea, bai hegoaldean, bai iparraldean, instalazioen gehieneko edukiera handitzeko. Hegoaldean, zutoin elektrikoa kentzea, aginte-koadro orokorra armairu homologatura eramatea, egungo harlangaitzeko horma eta forjatua eraistea, kontagailua eta koadro elektrikoa armairu homologatuan birkokatzea eta sartzeko bi ate berri instalatzea. Iparraldean, egungo iturria ordezkatu eta parkearen ondoko eremua hobetzea.	Obra beharrezkoa da proiektuaren aurrekontuan ez baita partida ekonomikorik aurreikusi. Teknikoki komenigarria da kontratistak jarduketa horiek egitea, obra urbanizazio-fasean dagoela baliatuta.

Cód. Validación: A.IZH6L24296SX4NDZ0YY9REXZ  
Verificación: https://zigoitia.euzkoitza.electronika.eus/  
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 9 de 20





<b>Obra-unitateak</b>	<b>Behar-beharrezkoak direnak</b>	<b>SPKLren 205.2 artikuluko kasuak</b>
ALUMINIOZKO XAFLAZKO SABAI AIZUNA	Aldagelen erdiko eremuko sabai faltsuaren ordezkari (urarekiko erresistentea den sabai hidrofugo jarraitu gisa proiektatua), aluminiozko xafla lakatuak jarri behar dira, kale-artekokoak, airea zirkulatu ahal izateko.	Obra aldatu behar da, aldageletako sabai aizunaren barruan aireztapen egokia bermatzeko, dutxetatik datorren hezetasunagatik, eta mantentze hobea egiteko. Teknikoki komenigarria da kontratistak lana egitea kostuak ez garestitzeko.
EURI-UREN KOLEKTOREA ETA ERREGISTRO-PUTZUA DESBIDERATZEA	AMVISaren ur-hornidurako kolektore berria desbideratzeko, beharrezkoa da antzinako hodi eta saneamendu-putzu bat kentzea, eta euri-uren kolektorea eta erregistro-putzua lekuz aldatzea.	Gerora sortutako eta aurreikusi ezin zen egoera: AMVISaren kolektorearen trazadura aldatzeko urbanizazio-obrak eta indusketak egin arte ezin zen trazadura horien berri izan. Ez du kontratuaren izaera orokorra aldatzen.
BENGOLARRA ERAIKINEKO KLIMATIZAZIO KOADROA	Gizarte-zentroa girotzeko koadro elektriko independentea instalatzea, 1. erabilera anitzeko gela eta Bengolarra eraikinaren erabilerak barne hartzen dituena.	Obra aldatu behar da, gizarte-zentroko klimatizazio instalazioa proiektatutako beste bi klimatizazio-guneekin (etxebizitza eta taberna-jatetxea) alderatuta konplexuagoa delako.
XAFLA TOLESTUZKO BARANDA HARRERAN	Harrerako baranda egiteko egurrezko taularen ordezkari altzairuzko xafla itsua jartzea. Goiko aldean tolestu egingo da eskudel jarraituak osatzeko eta hormari atxikitako barandan zokaloa kenduko da.	Obra aldatu behar da, proiektatutako materiala arinergia baita barandaren diseinuaren geometria garatzeko. Teknikoki komenigarria da eskailera eraikitzeke fasean egitea, lauzetara mekanikoki finkatuta doalako, eta mailak estali aurretik egitea.
TAULA ETA XAFLAZKO BARANDA ETXEBIZITZAN	Etxebizitzara sartzeko eskaileran karek-baranda jartzea, bi aldeetan metalezko xafla eta egurrezko taula dituena.	Obra aldatu behar da, beharrezkoa baita eskailera-mailen egonkortasuna bermatzea eta multzoari zurruntasuna ematea. Teknikoki komenigarria da kontratistak lana egitea eskailera-mailak eta -buruak lotuko dituen altzairuzko bantzia instalatzerakoan.
LAU ALDEETAN HARITZEZKOAK DIREN ESKAILERA-MAILAK ETA ESKAILERA-BURUA ETXEBIZITZAN	Etxebizitzara sartzeko eskaileran bigarren zatiko eskailera-mailen eta eskailera-buruaren 4 aldeak estaltzea.	Obra handitu behar da, profil metalikoak estaltzea aurreikusita baitzegoen proiektuaren diseinuan, baina ez hasierako neurketan.
ARGI-ZULOA ETA ESKAILERA EZKUTAGARRIA ESTALKIRAKO SARBIDEAN	Komunikazio-nukleoaren estalkian zuloan ixteko argi-zuloa eta sartzeko eskailera ezkutagarria jartzea.	Obra handitu behar da, estalkiaren gaineko komunikazio-gunerako sarbidearen segurtasuna bermatzeko. Teknikoki komenigarria da argi-zuloa lehenbailehen instalatzea, eurria barrura sar ez dadin.
UR BERO SANITARIOAREN EKOIZPENERAKO GEHIGARRIAK	Ur bero sanitarioaren hornidurako instalazio hidraulikoaren, zoru erradiatzailearen eta igerilekuetako beroa berreskuratzeko elementu gehigarriak (aeroterminoak makinetera ponpatzeko sistema eta plaken trukagailu-sistema, bigarren mailako ponpaduna).	Obra handitu behar da, ur bero sanitarioa ekoizteko sistema hobetzeko.





Obra-unitateak	Behar-beharrezkoak direnak	SPKLren 205.2 artikuluko kasuak
LEIHOEN IREKIERA KULUNKARIA 2. ERABILERA ANITZEKO ARETOAN	Gimnasioko eta lehen solairuko aldageletako leihoak irekitzeko sistema ordezte, zabukaririk kulunkatzailerera.	Obra hobetu behar da, irekiera zabukariak eragin nabarmena izan baitezake kirol-makinetan. Teknikoki, irekidura zabukaria giltza batekin desblokea daiteke, kristalak errazago garbitzeko.
ALDAGELETAKO DUTXETAN HORMA IRAGAZGAIZTEA	Dutxetako paramentu bertikalak xafila iragazgaitzarekin iragazgaiztea.	Obra hobetu behar da, epe luzera hobeto mantentzen dela bermatzeko, estaldura ur-iragazketen bidez degradatzea eta lizuna hedatzea saihestuz.
GIMNASIOKO MAKINENTZAKO DATUAK HARTZEA ETA RACK	Gimnasioko makinentzako zuntz optikoko kableatu bidezko datu-harguneen entxufe elektrikoaren harguneei gehitzea eta rack armairu berria instalatzea.	Obra egin behar da, gimnasioko makinaren ekipamenduak etorkizunean izango dituen konektibitate-beharrak aurreikusteko. Teknikoki ezinbestekoa da kontratistak egungo etapan lan hori egitea, ondorengo lanak ez eteteko.
ERREGISTROAK SABAI AIZUN AKUSTIKOAN	13 erregistro gehiago sarrerako sabai akustikoan, instalazioak mantentzeko.	Obra handitu behar da, sabaiaren gainean dauden instalazioen mantentze-lanak ahalbidetzeko. Teknikoki, erregistro horiek sabai aizunen itxitura egiten ari direnean jarri behar dira.
ALTZARIAK BAINUGELA-ALDAGELA IRISGARRIETAN	Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak xedatzen duenaren arabera, altzari guztiak jartzea hiru aldagela irisgarrietan: 3 bermatzeko barra eta eserleku eraisgarria, bizkarraldea dutxan duena, eta banku eraisgarria, bizkarraldea barra bakoitzean duena.	Obra handitu behar da dutxak eta aldagelak irisgarri uzteko, eraikinaren obra amaitzen denean erabat funtzionatzeko prest egon daitezten.

Lehenengo kontratu-aldaketaren ondorioz, hasierako aurrekontua % 2,30 handitu zen; bigarrenaren ondorioz, % 6,47; hirugarrenaren ondorioz, % 7,17; eta laugarrenaren ondorioz, % 2,97. Beraz, oro har, % 18,91ko igoera izan zen, eta ez zen iritsi legezko % 50eko mugara.

2024ko maiatzaren 14an, udal-arkitektoak prezio berriak onartzearen aldeko txostena egin zuen.

2024ko maiatzaren 16an, Udaleko behin-behineko kontu-hartzaileak kontratu-aldaketa izapidetzearen aldeko txostena egin zuen, eta kreditu egokia eta nahikoa dago indarrean dagoen aurrekontuko 342.622.000 aurrekontu-aplikazioan.

Aztertu da txosteneko dokumentazioa, eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorritik, eta azaldutako aurrekariak eta adierazitako zuzenbideko oinarriak ikusita, Udalbatzak, gehiengoz, honako hau **ERABAKI DU**:

**LEHENENGOA.** Onestea Bengolarrako kirol-instalazioen eraikina birgaitzeko eta handitzeko obren kontratuaren 4. aldaketaren espedientea, Europar Batasunaren Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak finantzatuta. Aldaketa horren bidez, obren prezio berriak onetsi ziren. Honako hauek dira prezioak:

Prezio berria duen partida			Kontratututako prezioa duen partida			Partida orekatua				
Unit.	Prezio unitarioa	EMA	Unit.	Prezio unitarioa	EMA	EMA	Kontratare n aurrekontu a	Kontratare n aurrekontu a baja barne	Kontratar en aurrekontu a baja eta % 21eko BEZa	Igoeraren ehunekoa kontratuareki ko





											barne	
1	Jarduketak frontoiko sarbidean eta babes-kutxa orokorren zutoina kentzea	1	7.615,40	7615,4								
2	Aluminiozko xaflazko sabai aizuna	26,10	97,73	2550,753	26,10	21,17	552,54					
3	Euri-uren kolektorea eta erregistro-putzua desbideratzea	1	2.397,33	2397,33								
4	Bengolarra eraikineko klimatizazio-koadroa	1	4.029,19	4029,19								
5	Xafla tolestuzko baranda harreran	16,70	505,57	8443,019	9,00m-ko baranda eta 14,00m-ko zokaloa	Baranda 81,41 € eta zokaloa 20,62 €	1.021,37					
6	Taula eta xaflazko baranda etxebizitzan	9,40	489,24	4598,856	7,00	71,55	500,85					
7	Lau aldeetan haritzezkoak diren eskailera-mailak eta eskailera-burua etxebizitzan	23,10	417,58	9646,098	21,60	41,67	900,07					
8	Argi-zuloa eta eskailera ezkutagarria estalkirako sarbidean	1	3.344,10	3344,1								
9	UBS ekoizpenaren gehigarriak	1	7.784,74	7784,74								
10	Irekitze kulunkariko leihoak 2. gela balioaniztunean	14	174,67	2445,38								
11	Aldageletako dutxen horma iragazgaiztea	63	49,64	3127,32								
12	Gimnasioko makinenzako datuak hartzea eta rack	1	4.420,78	4420,78								
13	Erregistroak sabai aizun akustiakoan	13	193,34	2513,42								
14	Altzariak bainugela-aldagela irisgarrietan	1	1.810,15	1810,15								
	<b>Guztira</b>			<b>64.726,24</b>			<b>2.974,83</b>	<b>61.751,71</b>	<b>73.484,53</b>	<b>71.176,90</b>	<b>86.124,04</b>	<b>% 2,97</b>

**BIGARRENA.** Kontratatari entzuteko izapidea betetzat jotzea, prezio kontrajarrien aktan idatziz jasotako adostasuna kontuan hartuta.

**HIRUGARRENA.** 86.124,04 € onartzea eta xedatzea, hau da, aldaketak kontratuaren prezioan eragiten duen igoera. Onartutako prezio kontrajarriak proiektuan sartuko dira gauzatutako obraren ziurtagiriak igortzeko.

**LAUGARRENA.** Erabaki honen berri ematea Kontu Hartzaitzari eta Diruzaintzari, dagozkion kontabilitateko idatzoharrak egiteko.

**BOSGARRENA.** Gauzatzeko epea 2024ko uztailaren 15era arte luzatzea. Kontratatariak obra-unitate berrien egikaritzari buruzko plangintza- eta berrantolaketa-dokumentua aurkeztu beharko du, aurrez aurreikusitakoekin batera.

**SEIGARRENA.** Ebazpen hau jakinaraztea Kontratuaren adjudikaziodun den INDENORT PV eta SL-PROVISER IBÉRICA SLU ABEEri (ZIGOITIA EB), dagozkion errekurtsioak adierazita.

**ZAZPIGARRENA.** Erabaki honen berri ematea obra-zuzendaritzari eta obraren exekuzio-zuzendaritzari.

**300/2024 espedientea. Solaria Eguzki Sorkuntza SL enpresak sustatutako eguzki-instalazio fotovoltaikoa eta haren ebakuazio-azpiegitura instalatzeko "Solaria Zierbena Solar 3" izeneko proiektuari buruzko adierazpen instituzionalaren proposamena.**

**Aldekoa**

**Bozketa mota:** Izenduna

Alde: 8; aurka: 0; abstentzioak: 1





Aldekoak	JAVIER GORBEÑA GARCÍA (EAJ- PNV) CARLOS ALBERTO ITURRIOZ MALAINA (EAJ- PNV) MAITE COBO BARCALA (EAJ- PNV) IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA (EAJ- PNV) EDUARDO LORZA GARCÍA (EH BILDU) AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ (EH BILDU) XABIER NAFARRATE CADIÑANOS (EH BILDU) MIKEL ISASMENDI TXURRUKA (EH BILDU)
Aurkakoak	-
Abstentzioak	ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁN (PP)

Alkate jaunak bozketarako aurkeztu du Solaria Eguzki Sorkuntza SL enpresak sustatutako eguzki-instalazio fotovoltaikoa eta haren ebakuazio-azpiegitura instalatzeko "Solaria Zierbena Solar 3" izeneko proiektuari buruzko adierazpen instituzionalari buruzko gaia gai-zerrendan sartzearen berrespena, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko Errege Dekretuaren 82.3 eta 97.2 artikuluekin bat. Aho batez onartu da.

Elisabeth Ochoa de Eribe Román zinegotziak, PPren izenean, azaldu du adierazpen instituzionalaren proposamenak eztabaida sortu duela bete talde politikoan. Energia-iturri berriztagarriak ezartzearen alde daude, baina, beren ustez, proposamenak ezin du lehen sektorea larriki kaltetu. Adierazi du "Solaria Zierbena 3 Solar" proiektuak eragin oso negatiboa duela Zigoitiko nekazarien artean, aintzat hartzen badugu balio estrategiko handiko lursail asko hartzen dituela, baina uste du adierazpen instituzional batek ez dituela mota horretako makroproiektuak geldiaraziko, eta beharrezkoak direla alegazioak aurkeztea bideratzen ari diren legezko prozeduren barruan. Hori dela eta, abstenitu egingo da bozketan.

Alkate jaunak azaldu du Udalak beste neurri batzuk hartuko dituela planta fotovoltaikoa ezartzearen aurka borrokatzeko, eta, jakina, alegazioak aurkeztuko dizkio proiektuari. Hala ere, argitu du komenigarria dela komunikabideetan heda daitekeen adierazpen instituzional bat egitea, herritarrek eta gainerako erakundeak kontzientiarazteko.

Alkate jaunak proposamena bozkatzeko eskatu du eta mozioa gehiengoz onartu da. Honako hau dio hitzez hitz:

Zigoitiko Udalak bere jarrera plazaratu nahi du Solaria enpresak gure lurraldean panel fotovoltaikoak instalatzeko proposatutako proiektuen eta horietan sortuko den energia kudeatzeko proiektatutako ebakuazio-lineen inguruan.

Lehenik eta behin, argi utzi nahi dugu Zigoitiko Udalak trantsizio energetikoaren aldeko apustu sendoa egingo duela. Izan ere, 2019an Larrialdi Klimatiko Egoera deklaratu genuen udalerrian, eta Klima Aldaketaren aurkako Plana ekarri zuen prozesu parte-hartzaileari ekin genion, hainbat eremutatik gure planetaren degradazioaren aurka borrokatzen lagunduko duten neurriekin.

Urteak daramatzagu neurri horiek ezartzen, gure udal-erakundearen energia-eraginkortasuna hobetzen eta erregai fosilekiko mendekotasuna murrizten saiatzen, nahiz eta oraindik bide luzea dugun egiteko.

Hala ere, uste dugu Solariak aurkeztutako proiektuak ondorio larriak dakartzala, eta ezin ditugu alde batera utzi. Proiektu hauen bidez sortuko den energia Zierbenara eramango da, eta bertan, enpresak 1800MW-raino ebakutzeko baimena du. Argi dago, beraz, proiektu horiek gure lurraldean izango dituzten ondorioak ez direla bakarrak izango, eta oraingoz ez ditugu ezagutzen enpresak proiektatzen dituen gainerako lantegien tamaina, kokapena eta kalteak, orain aurkezten direnei gehituta.

Beharrezkoa da orain publiko egin diren proiektuak baimentzeko eskumenak dituzten administrazioek haiekin batera joango direnen dimentsioa eta ezaugarriak ezagutzea,





hedapen horrek gure ingurumenean eta gure lehen sektorearen etorkizunean izango lukeen eragin globalari buruzko ikuspegi erreala izateko.

Zigoitian, Solaria-Zierbena Solar 3 proiektuan sartzen diren 111 hektareetatik 54 inguru balio estrategiko handiko lur gisa sailkatuta daude Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basogintzaren LAPean. Proiektuan bertan **LARRITZAT** jotzen den afekzio bat da, eta ezinbestekoa da lurzoru horien erabilera bermatzea gure lehen sektorerako.

Horrela xedatu da gaur egun izapidetzen ari den HAPON, autokontsumorako instalazioak eta energia-komunitate publikoak errazteko neurriak sartuz eta Solariak bere proiektuarekin bereganatu nahi dituen balio estrategiko handiko nekazaritza- eta abeltzaintza-eremuak erabat baztertuz.

Solaria-Zierbena Solar 3 proiektua ezartzeak aurrez aurre talka egingo luke gure etorkizuneko hirigintza-antolamenduan aho batez onartutako neurri horien aurka, arlo horretan ditugun udal-eskumenak urratuz.

Horrela, bada, Zigoitiko Udalaren Osoko Bilkurak erabaki du proiektu horien aurka agertzea eta indarrean dagoen legeriaren arabera proiektu horiek ezartzea eragozteko eskura dituen neurri guztiak hartzea. Horretarako, gure talde juridikoez egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ditu, eta araudiak prozedura horietarako ezartzen dituen baldintza guztiak zorrotz bete daitezela eskatu du.

Era berean, Zigoitiko Udalak konpromisoa hartzen du arlo horretan aholkularitza behar izan dezaketen herritarrekin, administrazio-batzarrekin eta udalerriko elkarteekin lankidetzan aritzeko.

Laburbilduz, Zigoitiko Udalak energia berriztagarrien aldeko apustua berresten du, betiere energia berriztagarrien hedapena ordenatua, soziala eta ingurumenaren aldetik bidezkoa eta iraunkorra bada eta herritarren ongizatea lortzera bideratuta badago. Gure erantzukizuna da guztiontzako etorkizun justu eta iraunkorra babestea eta bermatzea.

## B) KONTROL-JARDUERA

### 2023ko irailetik abendura bitarteko kontaketa-aktak

2023ko irail, urri, azaro eta abenduko gastu eta sarreraren aurrekontuaren eta kontaketa-akten gauzatze-egoeraren berri eman da, bai eta Diruzaintzako Kontuarena ere. Talde politikoetako ordezkari bakoitzari kopia bana eman zaio, azter dezan. Hona hemen emaitzak:

#### 2023ko IRAILEKO KONTAKETA

HASIERAKO IZAKINAK.....	2.885.117,99 €
Aurrekontuko sarrerak.....	30.976,54 €
Aurrekontutik kanpoko sarrerak.....	12.220,43 €
Aurrekontuko ordainketak.....	162.899,83 €
Aurrekontutik kanpoko ordainketak.....	-122,93 €
Sarrerak bueltatzeagatiko ordainketak.....	812,09 €
IZAKINAK GUZTIRA.....	2.769.371,49 €





2023ko URRIKO KONTAKETA

HASIERAKO IZAKINAK.....	2.769.371,49 €
Aurrekontuko sarrerak.....	586.784,85 €
Aurrekontutik kanpoko sarrerak.....	10.319,45 €
Aurrekontuko ordainketak.....	78.096,46 €
Aurrekontutik kanpoko ordainketak.....	28.942,58 €
Sarrerak bueltatzeagatiko ordainketak.....	0,00 €
IZAKINAK GUZTIRA.....	3.260.789,78 €

2023ko AZAROKO KONTAKETA

HASIERAKO IZAKINAK.....	3.260.789,78 €
Aurrekontuko sarrerak.....	858.777,81 €
Aurrekontutik kanpoko sarrerak.....	33.989,72 €
Aurrekontuko ordainketak.....	425.325,74 €
Aurrekontutik kanpoko ordainketak.....	2.917,78 €
Sarrerak bueltatzeagatiko ordainketak.....	2.017,29 €
IZAKINAK GUZTIRA.....	3.723.296,50 €

2023ko ABENDUKO KONTAKETA

HASIERAKO IZAKINAK.....	3.723.296,50 €
Aurrekontuko sarrerak.....	137.420,29 €
Aurrekontutik kanpoko sarrerak.....	26.180,23 €
Aurrekontuko ordainketak.....	640.098,91 €
Aurrekontutik kanpoko ordainketak.....	9.529,42 €
Sarrerak bueltatzeagatiko ordainketak.....	10.387,03 €
IZAKINAK GUZTIRA.....	3.227.503,71 €

**150etik 208ra bitarteko dekretuen kontu ematea**

2024-0150 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, desgaitasuna duen pertsonari





BEHI-BEHINEKO aparkatzeko txartela emateko]

2024-0151 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, desgaitasuna duen pertsonari aparkatzeko txartela emateko]

2024-0152 DEKRETUA [Alkatetzaren ebazpena, Eribeko 5. poligonoko 624. partzelan hirigintza-legezketasuna leheneratzeko espedientea hasi eta iraungitzat jotzeko, irрати-amateurren antena jartzeagatik]

2024-0153 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, arma-txartelak emateko]

2024-0154 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, funtzio anitzeko inprimaketa-makinak hornitzeko eta mantentzeko kontratu mistoaren behin betiko bermea itzultzeko]

2024-0155 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko martxoko nominak eta 2023ko atzerapenak ordaintzea onesteko]

2024-0156 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, herrien arteko de herri-kirolen txapelketak antolatzeke zerbitzuaren kontratua txikia adjudikatzeke]

2024-0157 DEKRETUA [Deialdiaren dekretua]

2024-0158 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, EJZren likidazioaren aurka jarritako berraztertze-errekurtsoa ebazteke epea bertan behera uzteke]

2024-0159 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, EJZren likidazioaren aurka jarritako berraztertze-errekurtsoa ebazteke gehieneko epea bertan behera uzteke]

2024-0160 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Apokadako argiteria publikoan lur-konexioko kablea birjartzeko kontratu txikia adjudikatzeke]

2024-0161 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, HAPO eta IEE (Ingurumen Ebaluazio Estrategioka idazteke lanak egiten jarraitzeke zerbitzu-kontratua adjudikatzeke]

2024-0162 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, GORBEIA IGEren 2022-2023 ikasturteke eskolaz kanpoko jardueren programaren justifikazioko kontua onesteko]

2024-0163 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2. administrari laguntzailearen lanposturako hautatutako pertsona proposatzeko eta dokumentazioa eskatzeko]

2024-0164 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Zigoitiko 4. poligonoko 270. eta 274. partzeletan abeltzaintzarako pabiloia egiteke obra handiaren lizentzia emateke]

2024-0165 DEKRETUA [Deialdiaren dekretua]

2024-0166 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Murgiako GURASOEN ELKARTEARI 2022-2023 ikasturteke Bidelagun programa egiteke emandako dirulaguntzaren justifikazioko kontua onesteko]

2024-0167 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko hiri OHZren, ezaugarri bereziko hiri OHZren eta landa OHZren erroldak onesteko]

2024-0168 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko urtarrilaren 1ean herritarren kopurua onesteko]

2024-0169 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko zaborrak biltzeke tasaren zerga-bilketako errolda onesteko]

2024-0170 DEKRETUA, [Alkatetzaren Ebazpena, 2023ko Aurrekontu Orokorraren likidazioa onesteko].







2024-0171 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2-2024 kreditu-soberakina gehitzea onesteko]

2024-0172 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 1/2024 kreditu-gaikuntza onesteko]

2024-0173 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 1/2024 kreditu gehigarria onesteko]

2024-0174 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, ARMIKELO KLUBAK VI-10.180 ehiza-barrutia errentan hartzeko lizitazioaren B eta C gutun-azaletan jasotako informazioa eskuratzeko]

2024-0175 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxabarri-Ibiñako 6. poligonoko 10567. partzelan dagoen Gorbeia merkataritza-guneko 10-11 lokalak barne-eraberritzeko obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0176 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Zestafe udalerriko 018-007-106 partzelako bidea egokitzeko obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0177 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, OJARAS KLUBAK VI-10.180 ehiza-barrutia errentan hartzeko lizitazioaren B gutun-azalean jasotako informazioa eskuratzeko]

2024-0178 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, ibilgailuaren behin betiko bajaren likidazioa onesteko, 2024ko TMIZren bilketa-errola onetsi ondoren]

2024-0179 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, ortu ekologikoetarako onartutako eskaeren behin-behineko zerrenda onesteko]

2024-0180 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Manurgako 3. poligonoko 2006A. partzelako karrerapea antolamendutik kanpokotzat jotzeko]

2024-0181 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Pagazuri aterpetxea erabiltzeko tasa itzultzeko]

2024-0182 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Bengolarra birgaitzeko eta handitzeko obraren 23. ziurtagiria onesteko]

2024-0183 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Bengolarra birgaitzeko eta handitzeko obraren 24. ziurtagiria onesteko]

2024-0184 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Larrinoako 6. poligonoko 6. partzelan urrututako legezkotasuna ez leheneratzeagatik hertsapen-isunak jartzeko]

2024-0185 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2. administrari laguntzailearen lanpostutako karrerako funtzionarioa izendatzeko]

2024-0186 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, erroldan izen-ematea ez berritzeagatik eta iraungitzeagatik baja emateko espedienteari hasiera emateko]

2024-0187 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, obra-amaierako dokumentazioa eskatzeko]

2024-0188 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko zerga-bilketako erroldan TMIZren likidazioa baliogabetzeko eta likidazio berria onesteko]

2024-0189 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Buruaga udalerrian 6. poligonoko 1336. partzelan dagoen etxebizitzako larrainera sartzeko atea jartzeko obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0190 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Ondategi udalerriko 2. poligonoko 2015. partzelan hesia konpontzeko obra txikiaren lizentzia emateko]





2024-0191 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroari Etxabarri Ibiñako SAUI-2aren Kontserbazio Batzarraren lehendakaritza aldatu dela jakinarazteko]

2024-0192 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, T/2024/10 kontabilitate-zerrendako ordainketak onesteko]

2024-0193 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Ubidestroi Trail 2024 mendi-lasterketa egiteko Zigoitiko Udalaren jabetzetan erabilera komun berezira baimena emateko]

2024-0194 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, kultura-jarduerak eta -ekipamenduak kudeatzeko softwarea hornitu eta instalatzeko kontratu txikia adjudikatzeke]

2024-0195 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Festikale 2024 programa gauzatzeko dirulaguntza izenduna emateko]

2024-0196 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko apirileko nominak ordaintzea onesteko]

2024-0197 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Mutuatik harrobietarako errepidea konpontzeko obrako (1. eta 2. fasea) behin betiko bermea itzultzea onesteko]

2024-0198 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Acosta/Okiozta udalerriko 5. poligonoko 104. partzelan abeltzaintza-itxitura egiteko obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0199 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, HLBGZren likidazioa onesteko].

2024-0200 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, HLBGZren likidazioa onesteko].

2024-0201 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, T/2024/12 kontabilitate-zerrendako ordainketak onesteko]

2024-0202 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, hiri-ondasun higiezinaren gaineko zergan hobaria ematea ukatzeko]

2024-0203 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2019., 2020., 2021., 2022. eta 2023. urteetan erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik tasaren likidazioa onesteko]

2024-0204 DEKRETUA, Ezeztatua

2024-0205 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, ortu ekologikoak erabiltzeko onartutako pertsonen behin betiko zerrenda onesteko]

2024-0206 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxagueneko 4. poligonoko 313. partzelan dagoen etxebizitzako estalkian panel fotovoltaikoak instalatzeko obra txikia legezatzeko]

2024-0207 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxabarri Ibiñan Gorbeia merkataritza-guneko estalkian panel fotovoltaikoak instalatzeko obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0208 DEKRETUA [Deialdiaren dekretua]

### Alkatetzaren txostenak

SOLARIAREN PROIEKTU FOTOVOLTAIKOA:

Alkate jaunak jakinarazi du Udalak alegazioak aurkeztuko dituela plaka fotovoltaikoak





jartzeko "Solaria Zierbena 3" proiektua gauzatu ez dadin. Azaldu du bulego tekniko bat kontratatu dutela alegazioak idazteko. Era berean, adierazi du Gorbeialdeako Kuadrillak ere ildo horretan jardungo duela eta beste talde tekniko bat kontratatu dutela alegazioak aurkezteko.

#### ODOLA EMATEKO AUTOBUSA:

Alkate jaunak jakinarazi du odola emateko autobusa maiatzaren 29an egongo dela udaletxearen aurrealdean, 16:30etik 20:15era bitartean.

#### EKINTZA BANDALIKOAK UDALETXEAN

Alkate jaunak salatu egin ditu duela gutxi udaletxean izan diren ekintza bandalikoak, fatxadak pinturaz beteta agertu baitziren. Deitoratu egiten ditu higiezin publikoak hondatzen dituzten ekintzak.

### C) ESKAERAK ETA GALDERAK

#### Eskaerak eta galderak

##### BAL TSA:

Eduardo Lorza García zinegotziak baltsa baten egoerari buruz galdetu du: izan ere, nahiz eta euri asko egin duen, husten ari da, agian hesi bat instalatu zelako.

Iñigo Gracianteparaluceta López de Ipiña zinegotziak erantzun du Arabako Foru Aldundiak berriztatze-itxura bat egin zuela 2017-2018an, eta ondorioztatu du baltsa lehorteak ezin duela zerikusirik izan obra horrekin.

Alkate jaunak esan du aditu baten bisita izango duela aurki eta egoera azter dezala eskatuko diotela.

##### FRONTOIA:

Ainhoa Fernández Domínguez zinegotziak frontoiko sarrera egokitzeko obraren egoerari buruz galdetu du, arriskutsua baitirudi.

Alkate jaunak erantzun du eraikuntza-enpresari eskatu diotela gune hori ahalik eta azkarren egokitzeko, instalazio horietan udalerriko ospakizunak egin ahal izateko.

##### GOBEIA HLHIKO SUKALDEA:

Xabier Nafarrate Cadiñanos zinegotziak galdetu du Gorbeia HLHI n sukalde bat egitea sustatzen ari diren. Alkate jaunak erantzun du eskaria bidali dutela Eusko Jaurjaritzara eta 200 lagun jaten emateko sukalde planifikatu dutela.

##### AREKETAKO SASTRAKAK KENTZEA:

Xabier Nafarrate Cadiñanos zinegotziak galdetu du ea ba al dakiten noiz kenduko diren areketako sastrakak. Alkate jaunak erantzun du zerbitzu hori Arabako Foru Aldundiak ematen duela eta plangintzaren barruan kentzen dituztela sastrakak.





**ETXEBIZTZAK TEILA BELTZEKIN ERAIKITZEA:**

Eduardo Lorza García zinegotziak adierazi du Larrinoan laupabost etxebizitzetan teila beltzak jartzen ari direla, eta amaitzeko esan du Zigoitiko arau subsidiarioek ez dutela halakorik baimentzen; izan ere, arau subsidiarioek teila gorriak jartzeko eskatzen dute.

Alkate jaunak erantzun du dagoeneko jakinarazi diela udal-zerbitzu teknikoei.

*Idazkaritzaren eginbidea:*

*2024ko ekainaren 28ko ohiko osoko bilkuran, alkate jaunak galdetu du Udalbatzako kideren batek oharrik egin nahi dion 2024ko maiatzaren 20ko aktari. Akta deialdiarekin batera banatu zen.*

*Inork ez du oharrik egin, eta, Toki Erakundeen Antolamenduari, Jardunbideari eta Araubide Juridikoari buruzko Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 91.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, akta onetsi da.*

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA**

